




Izenburua: **Epilogorik gabe**

Egilea: **Elena Sanchez**

Bilduma: **Poesia, 49**

ISBN: **978-84-9109-978-9**

Salneurria: **11,00 €**

DESILUSIOAREN POETIKA. ERRESISTENTZIAREN POETIKA

Ez dakit poesia beti esplikatatu behar den. Batzuetan iruditzen zait gauzak gehiegi esplikatzeko joera dugula gozatu beharrean. Obsesio handia dago askotan dena ulertzeko, dena azaltzeko, eta poesia (edozein arte espresio bezala) ezeren gainetik, gozatu egin behar da.

Dena den, sorkuntzaren prozesua laburbiltzen saiatuko naiz.

Denbora gutxian idatzitako poema liburua da, bederatzi edo hamar hilabeteetan. Ez dakit liburuaren egitura hasieratik pentsatuta nuen, nik uste dut liburua berez sortu zela, pultsio batetik sortu zelako, bulkada batetik, eta gero eroaten utzi nion.

Liburuaren lehenengo poema 2022an sortua da, 2022ko martxoan hain zuzen. Pandemia batetik ateratzen ari ginen Ukraina eta Errusiaren arteko gatazka gordindu zenean. (Testuingurua Gazako genozidioa ere izan liteke, Libano, Yemen...gerra eta gatazka adibide ugari dago...). Horri larrialdi klimatikoa, krisi migratorioa gehitzen zitzaizkion, eta gizarte sasi-anestesiatur.

Pultsio horretatik sortzen dira lehenengo poemak, desilusio batetik jaiotzen dira, mundua gutxi batzuen eskuetan dagoela eta besteontzat, gehiengoarentzat, etorkizunik ez dagoela ikusita. *Etorkizuna* hitza lausotzen hasten zaidan une batean sortzen da poema liburu hau. Handik lehenengo atalaren (eta lehenengo poemaren izenburua) “Etorkizunik gabe” “Gerorik ez, “NO FUTURE”.

NO FUTURE

Hilabeteak dira balkoiko landareak
ureztatzen ez ditudala.
Arratsalde honetan,
Banskyren graffiti batean bezala,
itsasoak zulo urdin bat zabaldu du
nire etxeko horman
eta barruraino sartu zait.
Eta orain olatuen hotsa entzuten dut hemendik,
bere burrunba eternala.
Arrotza. Ulergaitza.

Historiaren urte luzeak ekarri ditu
eta inork irakurtzen ez dituen entziklopedietako argazki maiztuak.

Ispiluen aurrean geld,
zutik nago.
Mutu, indarge,
mundua etengabeko gerra batean
urtzen den bitartean.

Gerorik ez
supermerkatuko pasilloetan galdu zen
belaunaldi batentzat.

Poema ezkorrak dira, tristeak, lehen atalekoak: bataila galduak, noraeza, larrialdi klimatikoa, krisi migratorioa eta migratzaileen tragedia, prekarietatea...

Mina dago poema horietan.

Lehenengo ideia poema liburuazabalik uztea izan zen, epilogorik gabe, neure buruari poema liburuari amaiera ematea uko izango banio bezala. Ez nuen amaiera idatzi nahi. Izenburua, beraz, hasieratik ere sortu zen.

Baina, suposatzen dut une batean, etorkizunik ez ikusteak beldurra eragin zidala eta beldur horri aurre egin nahi izan niola, itxaropenik gabe bizitzea ez bizitzea bezalakoa baita.

Gogora etorri zitzaidan Audre Lorde poeta afroamerikarrak “La hermana, la extranjera” saiakeran idatzitako esaldi bat, *“Conocer el miedo nos ayuda a ser libres”*, eta ideia horrekin poema liburuari buelta ematen saiatu nintzen, ezkortasun horretatik aldentzen. Eta bigarren atala idatzi nuen: “BELDURRAREN TIRANIAREN AURKA”

Nire beldurrak identifikatzen banituen errazago eutsi ahal nien, errazago aurre egin ahal nien. **Erresistentzia** agertzen da hemen. Bizitzea merezi du. “nabigatzen jarraitzea” merezi du. Desesperantzatik ihes egitea erabaki nuen une batean.

Bigarren atal honetako poemek beste kolore bat dute, beste tonu bat. Hor agertzen dira: amets txikiak, borroka txikiak eta babeslekuak, nire errefugio propioak, musika, literatura, maitasuna. Erresistentzia eredu xumeak ere, borrokatu eta iraun duten emakume idazleak, esaterako, pertsonaia literarioak. **Begirada erresilientea dago** hemen: minari aurre egiten diot.

Azken finean, honen guztiaren atzean galdera bat dago: zure ametsak urrunegi ikusten dituzunean, zerk mugitzen zaitu? Zerk mantentzen zaitu bizirik?

Eta amaieran EPILOGOA dago, hirugarren atala. Tranpa txiki bat da, egia esanda, poema liburu hau epilogorik gabe jaio zelako. Baina poetek lizentzia txikiak dituzte edo, Fernando Pessoa esan zuen moduan “O poeta é um fingidor” , poeta iruzurgilea da. Eta azkenean poema liburuari epilogo oparitu nahi izan nion, desilusioari ilusioa piztuz, desesperantzari esperantza izpi bat emanez.

Azken atala laburra da, hiru poemek osatzen dute: “Enegarrenean”, “Toki segurua” eta “Gramatika berria”.

“Enegarrenean” poeman Jose Luis Otamendiren *Harea* poemaren aipu bat dago “ *Harrien azpian bizia dago: / xomorroak oskolak sugandilak, / eta bizitzaren azpian / beste hondartza batzuk*”.

Eta nabigatzen jarraitzea deliberatzen dut, hondartza hori helmuga.

“Enegarren aldiz
erresistitzera kondenaturik
nabigatzen jarraitzea deliberatzen dugu.
Urrunean,
korapiloen atzean
beste hondartza bat.”

Elena Sanchez
Donostia, 2024ko azaroak 8